

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZANBRANAKO UDALA

Udaleko lanpostuen zerrenda partez aldatzea

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikuluekin bat etorritik, argitaratu egiten da udalak 2020ko otsailaren 6ko bilkura berezian onetsi zuen lanpostu zerrendaren aldaketa partzialaren espedientea, zeinaren arabera 1998. urtetik derrigortasun datarik ez duen udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuko 4. hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data 2020 otsailaren 6a izango da.

Udalbatzak idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldatzea onetsi du. Lanpostu horrek, egun, ezaugarri hauek ditu:

Izena: idazkari-kontuhartzailea. Plaza kopurua: 1.Taldea: A1/A2.Tituluak: gaikuntza nazionala duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoa. Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun datarik gabe. Lantokia: udaletxea. Administrazio egoera: beteta. Arduraldia: osoa. Destino osagarriaren maila: 26. Betetzeko era: lehiaketa. Berariazko osagarria: 22.874,08 euro.

Ezaugarri hauek izango ditu aurrerantzean:

Izena: idazkari-kontuhartzailea. Plaza kopurua: 1.Taldea: A1/A2.Tituluak: gaikuntza nazionala duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoa. Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2020ko otsailaren 6a. Lantokia: udaletxea. Administrazio egoera: beteta. Arduraldia: osoa. Destino osagarriaren maila: 26. Betetzeko era: lehiaketa. Berariazko osagarria: 22.874,08 euro.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Zanbrana, 2020ko otsailaren 6a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI